

ALKOHOLA ETA HAREN METABOLIZAZIOA

Alkohola nerbio-sistema zentraleko **droga depresorea** da; horrek esan nahi du jokabidea kontrolatzeko, arrazoitzeko, ebaluatzeko eta beste hainbatetarako arduradun diren garunaren funtzioak murrizten dituela. Gainera, mekanismo depresore horrek zenbait ondorio eragiten ditu: autokontrol gutxiago, hitz egiteko jario handiagoa, ongizate-sentsazioa, barre arina eta deshinibitzea.

Gero, orekaren, memoriaren, apetituaren eta beste hainbaten arduradun diren garunaren beste funtzio batzuk gutxitu egiten dira, eta hauexek eragiten dituzte: baldartasun motorra, ibiltzeko zailtasuna eta desoreka, erreflexuen galera, sedazioa, errendimendu psikomotorren murrizketa eta ibilgailuak gidatzeko edo makinak erabiltzeko gaitasunaren murrizketa.

Edari batean hartzen den alkohola digestio-aparatuan xurgatzen da, odol-zirkulaziora doa eta hortik garunera eta, azkenik, gibelaren bidez kanporatzen da. Horrek esan nahi du alkohola odolean dagoen bakoitzean, ezerk ez duela laguntzen kanporatzen, denbora igarotzea uzten ez badugu. Ez kafe kargatuak, ez gorakoak, ez haizea hartzeak, ez estimulatzailea hartzeak, ez aspirina bat hartzeak.

Alkohola kanporatzeko abiadura, gutxi gorabehera, ordu bakoitzeko trago batekoa da. Logikoa denez, zenbat eta azkarrago edan, orduan eta denbora gehiago behar da kaleratzeko; izan ere, alkoholemiak berriz ere egiten du gora, aurreko alkohola kanporatu aurretik eta intoxikazio akuturako arrisku handiagoa dago.

Alkohol gehiegi eta luzaroan kontsumitzeak kalteak eragiten ditu grafikoan adierazitako organo guztietan.

